



2017KO IRAILAREN 11KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2017.09.11.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Mentxu Peña Lizarazu and.
Zinegotziak:
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Igor Ugalde Salazar jn.
Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Igantziko Udala: herriko igerilekurako aportazioa eskaera.
- 3.-Gizarte Hezkuntza Lanbidearen erregularizazio legeari babes emateko adierazpena.
- 4.-Tantirumairu ikastola: eszenatokia erabiltzeko eskaera.
- 5.-Abelzaintzako toki azpiegiturak sortu eta hobetzeko laguntzen deialdia.
- 6.-2017ko aurrekontuaren aldaketa: hasierako onespena.
- 7.-Alkatearen ebazpenak.
- 8.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2017ko abuztuaren 11an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE, aldaketa honekin:

-3 puntuaren edukia, "Sararik gabeko zolatze lanen atala: Goienburu karrika eta Salbatore karrika" agertzen diren aipamen guztiak ez dira zuzenak: Goienburu karrika eta Karrika Nagusia kaleak dira eta.

2.-IGANTZIKO UDALA: HERRIKO IGERILEKURAKO APORTAZIOA ESKAERA.

Igantzikoko Udalak tarifa desberdinak ditu herriko igerilekura sartzeko. Igantzin erroldatuak direnentzat eta kanpotarrentzat.

Aurreko urteetan Arantzako Udalak kopuru bat ordaindu dio Igantziko Udalari aranztarrei Igantzin erroldatuak diren bezala kobratzeko. Aurten 1.200,00 euro eskatzen du Igantziko Udalak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 1.200,00 euro ordaintzea Igantziko Udalari, Arantzako herritarrek Igantziko herritarrek ordaintzen duten prezio bera kobratzeko baldintza pean.

3.-GIZARTE HEZKUNTZA LANBIDEAREN ERREGULARIZAZIO LEGEARI BABESA EMATEKO ADIERAZPENA.

Ikusirik Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialak igorritako adierazpena, gizarte hezkuntza lanbidearen erregularizazio lege sortzeko eskaerari buruz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Udal honek bere babesa adieraztea Hezkuntza Sozialari, herritarren beharrezaneia eta eskariei erantzuten dien lanbidea baita eta hezkuntzaren bidez aldaketa sozialak eragiten baititu.

2) Osasun Ministerioa eta Gizarte eta Berdintazun Zerbitzuak premiatzen ditu Hezkuntza Sozialaren lanbidea arautzeko lege bat taxutu dezaten.

3) Erabaki hau Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialari helaraztea.

4.-TANTIRUMAIRU IKASTOLA: ESZENATOKIA ERABILTZEKO ESKAERA.

Ikusirik Tantirumairu Ikastolak, 2017ko Nafarroa Oinez antolatzekeo arduraduna, urriaren 15ean euskararen aldeko besta antolatzekeo egindako eskaera, Arantzako Udaleko eszenatokia erabiltzekeo eta Udaleko langile baten laguntza muntatzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Tantirumairu Ikastolari Udaleko eszenatokia erabiltzekeo baimena ematea.

2) Udaleko langile baten laguntza eskeintzea.

3) Akordio hau Tantirumairu Ikastolari jakinaraztea.

5.-ABELZAINZAKO TOKI AZPIEGITURAK SORTU ETA HOBETZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA.

Landa Garapenekeo, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiak emandako 882/2017 ebazpenaren bidez, 2017an abeltzaintzako toki azpiegiturak sortu eta hobetzekeo laguntzak ematekeo deialdi berezia onesten du.

Udal honek laguntza eskatu du ondorengo lanak egitekeo: 2 oztopo kanadar jartzeko (Meaka eta Sagargoxo alderdietan), Larrainborda alderdiko oztopo kanadarra moldatzeko eta Madalenekeo Borda bidean hormigoia botatzeko.

Landa Garapenekeo, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiak emandako 1023/2017 ebazpenaren bidez Arantzako Udalari diru laguntza ematen zaio eskatutako obrak burutzeko.

Kontuan hartuz orain arte herrian egin diren pisten obrak Udala eta herritarren artean egin direla.

Aho batez, ERABAKI DUTE:



1) Aientza auzoko baserri guztiekin bilera egitea irailaren 15ean, arratsaldeko 19:00etan.

6.-2017KO AURREKONTUAREN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA

Nafarroako Gobernuak diru laguntza eman du Arantzako abeltzaintzako toki azpiegiturak sortu eta hobetzeko.

Kontuan hartuz ez dela partidarik lanak burutzeko.

Kontuan hartuz 2016ko kontuan itxi ondoren izandako soberakina.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2017ko aurrekontuaren 3. aldaketa egiteko espedientea hasiera batean onestea.

2) Espedientea Idazkaritzan jartzea ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

7.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2017ko 110. ebazpenetik 117. ebazpena arte.

8.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

9.-ONDARE ARKEOLOGIKO ETA PALEONTOLOGIKOAN ESKU HARTZEA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZA EMATEKO DEIALDIA.

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontselariak emandako 26E/2017 Foru Aginduaren bidez, Nafarroako toki entitateei ondare arkeologiko eta paleontologikoan esku-hartzeak sustatzeko diru laguntzak emateko deialdiaren oinarriak onesten ditu.

Kontuan hartuz Aranzadi zientzia elkarteak Ostolo alderdiko kobazuloan egin dituzten lanak eta 2017. urtean aurkeztu duen indusketa arkeologikoaren egitasmoa.

Ikusirik Kultura eta Printzea Erakundeko zuzendari nagusiak emandako 170/2017 ebazpena, Nafarroako Foru Komunitatetako 2017ko indusketen eta arkeologi prospekzioak egiteko Plana onartzen duena, Ostolo kobazulokoa egin nahi diren lanak barne.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Diru laguntza eskaera egitea aipatutako lanak burutzeko.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Mentxu Peña Lizarazu and.



